


Ekonomia %2,3 hazi zen hirugarren hiruhilekoan

EAEko barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, **Euskadiko ekonomia %2,3 hazi zen 2025eko hirugarren hiruhilekoan** urte hasierako goranzko bidea sendotuz. Aurrerapen horrek eraikuntzaren (%5,0), zerbitzuen (%2,9) eta barneeskariaren indarra eta dinamismoa berresten ditu, bai eta industriaren beheranzko joeraren nolabaiteko arintzea ere, zertxobait hobetu baita (%0,2).

Marka berria Gizarte Segurantzako afiliazioan

Gizarte Segurantzako afiliazioa
Urte bakoitzeko azaroa. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantza.

Azaroan, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,3 gehitu zen urte artean, aurreko hilean baino bi hamarren gehiago. Zehazki, afiliazioa 1.036.074 afiliatutan kokatu zen, serie historiko osoko erregistrorik handiena izanik. Emakumeek (%1,3) gizonek (%1,3) adina protagonismo izan zuten igoera horretan.



Langabezia erregistratua gutxitu zen azaroan

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko azaroa. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Azaroan, Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabeziak behera egin zuen, bai aurreko hilabetearekin alderatuta, bai iazko azaroarekin alderatuta, Gabonetako erosketek lagunduta. Urte arteko aldakuntza tasa %1,3 jaitsi zen eta hil artekoa -%1,0. Bestalde, 106.486 pertsona zeuden langabezian, 2008tik azaro batean erregistraturiko kopururik txikiena.

Euskadiko industria jarduera %3,4 hazi zen

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko urria. Indizea



Iturria: Eustat.

Industriaren ekoizpena %3,4 gehitu zen urrian, aurreko urteko aldi beraren aldean. Igoera horretan indizearen osagai guztiek hartu zuten parte, kontsumo ondasun ez-iraunkorrek izan ezik (-%0,1). Hazkunde nabarmenenak kontsumo ondasun iraunkorrek (%10,7), energiak (%10,1) eta ekipa ondasunek (%7,3) izan zituzten.